

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Astelehena, 2012ko otsailaren 20a. IX. urtea. 2.365. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Euriak jaiarekin bat egin zuen atzokoan, hala eta guztiz ere, kaleak jendez bete ziren. Irudian 'Vasconia Secret'-en desfilea. I.TERRADILLOS

MOZORROZ BUSTI DIRA KALEAK

Zaldunitarekin batera mozorroak, koloreak, konpartsak, karrozak... eta euria etorri dira Tolosako inauterietara; kaleak txiki gelditu dira aurtengoan ere

Gaurkoan, Astelenitan, aisialdi taldeen txanda izango da; azken hilabeteetan landutako dantza eta mozorroak herritar guztien aurrean aurkeztuko dituzte **4-5**

Elketa Jatetxea



Inauterietako menu berezia

Etxeko foie terrina fruitu gorriekin
Iberiar urdajazpikoa
Txangurro, aguakatea eta olagarroz
eginjako entsalada epela
Ondatxo risottoa
Garaiko barazkiak urdajazpikoarekin
Zapo, ezkira eta muskuluz beteriko
krepa, marisko saltsarekin
Legatza melatua
Txibiak pelayo erara
Txekor masailak gisatuak
Txuleta zatiak pikiloekin
Etxeko tartak
Brownie-a krema ingelesarekin
Mandarinazko cava sorbeta
Kafea, etxeko krizantza, sagardoa
eta ura barne

Prezioa: 30€
(bez-a barne)

- Egunko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia
- Adosturiko menua

Enkarguz:

- Taldekako babarrin jatea
- Txerrikumea • Arkumea

ERRESERBA EGITEKO:

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •
943 65 21 16
elketajatetxea@hotmail.com



Jon Iraola > Inauterizalea

Gehienez mozorroren bat soinean duela ikusten dugu Jon Iraola ibartarra; Tolosako inauterietan ez du hutsik egiten, eta nola ez, mozorroa jantzi eta paperean ondo sartuta ibiliko da.

«Egunez gauez baino gehiago gustatzen zaizkit»

Eneritz Maiz

Jon Iraola (Ibarra, 1980) oso eza-guna da. Pantaila txikiaren beste aldean, mozorrotu eta antzerkia egiten du. Inauterizalea dela onartu du, eta egunero saiaturko da kalera atera eta inauteriez gozatzen.

Nola bizitzen dituzu Tolosako inauteriak?

Txikitatik bizi ditut. Nik uste dut, Tolosa inguruan bizi garen guztiok bizitzen ditugula txiki txikitatik, eta barru-barrura sartzen zaizkigula. Niri asko gustatzen zaizkit, asko.

Inauterietako egunik onena?

Ostegun Gizena asko gustatzen zait. Lehen eguna da, eta jendea gogoarekin egoten da. Gero igandea gustatzen zait gehiena, eta astelehena ere gustuko dut. Tira, egia esan, egun guztiak ditut gustuko. Egunduz dute bereizgarritasun bat: igandean karrozak ateratzen dira, eta jada inauterie-

tan benetan sartzen zara. Astelehenean, urtero, kuadrilako bi edo hirurekin prestatzen dut mozorroa. Eta astearte ere gustatzen zait, azken eguna denez, aprobetxatu egin behar delako.

Posible izanez gero, egunero ateratzen saiatzen zaren horietakoa zara?

Bai. Egunduz saiatzen naiz ateratzen baina inauterietan gehiago gustatzen zaizkit egunez gauez baino.

Zure lana dela eta, egunerokotasunean ia mozorrotuta ibiltzen zara. Egunduz mozorrotzeko gogorik geratzen zaizu?

Noski baietz. Lanagatik, nahiz eta orain hainbeste ez izan, egunduz hiru aldiz aldatzen nintzen. Baina inauterietan berdin-berdin gustura mozorrotzen naiz.

Mozorroak alde aurretik prestatzen dituzu ala azken momentuan ibiltzen zara?

Normalean prestatuak izaten ditut. Igandean kuadrilakoak kon-

↓ Tragoxka batean

- **Egunik onena.** Zaldunita.
- **Kalea edo taberna.** Kalea.
- **Eguna ala gaua.** Eguna.
- **Mozorro bat.** Maskara dutenak gustatzen zaizkit.

partsarekin ateratzen gara mozorrotuta, eta alde aurretik prestatu izaten dugu, eta astelehenekoa ere bai. Astearteko eguna izaten da inprobisatzeko eguna. Igandean ateratako arropa garbi egunez gero igandekoarekin, eta bestela armarura joan eta zer edo zer jantzia izaten da.

Noiz hasten zarete mozorroak prestatzen?

Gabonak iristen dira, eta orduan hasten gara hasi beharko dugula pentsatzen elkarri esanez. Ideiak bota eta data tope bat jartzen dugu. Behin inauterietan pasata, hurrengo urterako zer pentsa-



HITZA

tzen jartzen zara, baina azkenean ahaztu egiten zait, berriz inauterietan gerturatu arte.

Mozorro bat aukeratzekotan, zein?

Ez nuke bat aukeratu. Mozorro bakoitzak dauka bere istoria. Ez da bakarrik mozorrotzea, baizik eta mozorro bakoitzak inguruan sortzen duen giroa.

Zuri ez zaizu asko kostako paperean sartzea.

Hori da. Paperean sartzen bazara mozorro bakoitzak du bere bereizgarria. Mozorro guztiak ez-

berdinak dira, eta horregatik ez nuke bat aukeratu. Hala ere, maskara duten mozorroak gustatzen zaizkit, jendeak ez ezagutzeko ere bere jokoa du.

Zuk egin duzun pertsonaiaren batez mozorrotutako jendearekin pasadizoren bat edo izan duzu?

Bai tokatu izan zait, adibidez putakumiaz jantzita daudenekin topo egitea. Baina jendearekin ongi, gerturatzen zaizkizu eta argazkiren bat atera eta listo. Pasadizo berezirik ez.



Dianak ohetik jaiki du Tolosa

Zaldunita egun handia 08:00etan hasi da aurten ere, ehundaka tolosarren pijama kolorez margotuta

Musika banda kalez kale ibili da hiru orduz, inauteri gosearen gozamenarako

Izteia Urkizu

Beste urte batez, tolosarrek kantuari jarraitu eta ohetik jaiki ziren atzo Dianarako, Zaldunita egunez, mozerro festa hasteko.

Ehunka lagun bildu ziren Gorriti plazan 08:00etan, eta Tolosako musika bandaren erritmora saltoka ibili ziren Alde Zaharreko kaleetan barrena.

Tradizioari jarraituz, pijama, txapin eta etxeko mantalak soinean jantzita atera ziren batzuk. Beste batzuek, berriz, aurreko hilabeteotan prestatutako mozerroak kalera atera zituzten goizgoizetik; izan ere, *inauteriak beti alaitzen gaitu guztiz*, Dianan.

Salda beroa inauteri goizari

Gorputza berotzeko saltoka ari- tzeaz gain, atzo goizean Dianara atera ziren tolosarrek salda beroa dastatu ahal izan zuten, sukaldari onenen eskutik. Zuriz jantzita, eta benetako sukaldarien antze-

ra, gosaria eskaini zieten inauterizaleei.

Ez ziren, ordea, Tolosako mozerro festa Dianan hasi zuten bakar- rarak izan. Kalejiraren aurretik, bidea irekiz, luxuzko dendarik ga- restienetatik etorritako hiru emakume joan ziren, larruzko arropa soinean zutela. Klima al- daketari ere azalpena bilatu nahi izan diete, aurten, tolosarrek. Zientzialari batek azpiko arropa- ren arabera klima aldaketaren ikerketa azaldu zien saltoka zih- azenei, poesiak banatuz.

Gero, gosaltzera

Diana 08:00etan hasten den arren, 11:00ak aldera arte kalejiran ibil- tzen da musika banda, herritarre- kin. Askok, ordea, saltoka gopu- tza berotu eta gero, kafetegi nahiz tabernetara jotzen dute, gosari le- gea egitera.

Bi festa egun aurretik ditu oraindik Tolosak, eta urte osoko sormenaz gozatzeko garaia da.



Haurrak ere inauterizale. I. URKIZU



Bakoitzak bere inauteria bizi du. I.U.



Inauterizaleei salda banatu zieten sukaldariz mozerrotuta. I. URKIZU




Luxuzko arroparekin hasi zuten batzuk Zaldunita. I. URKIZU



Tolosako musika bandako kideek ere mozerrotuta hasten dute Zaldunita. I.U.



Ehunka lagun jaiki ziren Dianan salto egitera. I. URKIZU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Mozorrotuta, euripean dantzan

Enertiz Maiz

Tolosako inauterietako egunik handiena dela esan daiteke Zaldunita. Ostegunetik jai giroa nagusi bada ere, igandea izaten da suroko asteetan prestatuko mo-zorroak jantri, eta goizean goize-tik kalera ateratzeko eguna. Eguna trise-sonatu zena atzoan, baita tolosarek arpegi alai-ekin zioten aurre jaiari. Eguraldi-ak lagundu ez bazuten ere, ez zuen eguna zapuztea kotu. Gu-tiaren gaitetik, umore ona eta festarako gogoia izan zituzten. Eu-ripean dantzan ibili ziren, ater-kek alde batera utzia. Akitasun horrek, eguzkiaren irribarrea ere Tolosara gerturatu zuen, arrat-solean. San Frantzisko pasalekua jen- dete zen. Tolosarek gain, kanpotik ere jende ugari etorri

baitzen karrozen eta konpartsen joan-etorria ikustera. Tolosako bazter guztiak autoz bete ziren eta autoz aparkatzea ez zen erra-za izan. Tolosako kaleetan ibili ziren ibilgailu bakarrak Karroak eta konpartsak izan ziren: A taldea, Albako dukesaren ezkontza eta hautu-saldia, egogiarrak, pun-kiak, xampai berbilak, pinotxo, Vasconia Secreteko nesken desfi-les, sevillarrak... Arratsaldean, zeren plaine elkartu zen Jendeak, eta urtero bezala, kalejiran jutsi ziren guztiak txarangaren atze-rik. San Frantzisko pasalekua gaur gainezka egongo da berri-ro ere. Protagonistak, ordea, aldatu egingo dira. Aisialdi taldeetako haurrek hartuko dute Zaldunita-ko artisten erreleboa.

etolosa@hitza.info



Haur, gazte eta heldu, guztiak ibili ziren kalean gora eta behera prestatuko ikuskizunak eskainitzen. E. MAIZ

TOLOSALDEKO hitza
 ETALAITZALDEKO bertako egunkaria

902-82 02 01
 (Arrepean) 943 652 001 (Tolosa) / 943 652 000 (Tolosa)

tolosaldea.hitza.info
leizaldea.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
 Abak 01/01/01 5 behar. atona 2 20100 Tolosa

egin zaitez harpidedun!

Beharrezkoa da datu guztiak betezea

GURU GATZE AUTOAK

Tel: 943 454 025
 943 650 352
 Faxo: 943 652 653

Bento Añbea
 industriagunea z/g
 20270 Ansoaia



Tamaina, estilo eta kolore guztiakako karroza eta konpartak ikusteko aukera izan zen; aterkien artean ikusi behar izan ziren aurtengorako prestatuko ikuskizunak. E. MAIZ / E. MAIZ

Munduko sokatira txapelketaren txanda iritsi da

Eskoziako Perth hirian Munduko Sokatira Txapelketa jokatu da hilaren 23tik 26ra, taldeka eta herrialdeka

Ibarrak taldekakoan hartuko du parte, ostegunean eta ostiralean

Asier Imaz Ibarra

Ibarrak sokatira taldeak, Eskozian jokatu den goma gaineko 8X8ko Munduko Txapelketan parte hartuko du, ostegunean eta ostiralean. Euskal Herriko txapelketan bezala, pisuaren arabera, hainbat mailatan lehiatuko dira ibartarrak Perth-en (Escozia).

Bidaia, ordea, hilaren 22an hasiko da, goizean goiz, Ibarrak plazan. 04:00ak inguruan, autobusez Bilbora abiatuko dira 31 lagun. Hauetatik 26 tiralariak izango dira. Espedizioa, entrenatzaile, koordinatzaile eta senideek osatuko dute. 07:00ak aldera, Bilbon hegazkina hartuko dute ibartarrek, Alemaniako Frankfurt hirira iristeko. Hemendik, Edinburgorako hegaldia hartuko dute. Eskoziara iritsi orduko, Munduko txapelketa jokatzeko den hirira joango dira, 14:00etan pisaketak hasiko baitira.

Anjel San Roman ibartarren entrenatzailea da. Bere esanetan, asteazkenean egiten den pisaketa horrek, txapelketa guztirako balioko du.

Klubaren arteko lehia ostegunean hasiko da, ostiralean amaitzeko. Ondorengo bi egunetan, larunbatean eta igandean, herrialdeen arteko munduko txapelketa jokatu da. Hego Euskal Herriko tiralariak Espainia ez ordezkatzearabaki dute, ondorioz, ez da Espainiarik egongo lehian.

Munduko txapelketaren lehen tiraldiak hilaren 23an hasiko dira, 10:30ean. Gizonezkoek 560 kilotan ekingo diote lehiari. Emakumezkoek 11:00etan helduko diote sokari, 540 kilotan. Goizean bertan jakingo da garaileak nortzuk diren. Bazkaldu ondoren, 14:30ean, gizonezkoen 640 kiloko eta 23 urte azpikoa jokatu dira. Lehen dominak ostegunean banatu dira, eta tiralariak, galdu ala irabazi, Hotelerako bidea hartuko dute.

Ostiralean klubaren arteko txapelketaren bigarren eta azken eguna jokatu da. 10:30ean, gizonezkoak 600 kilokoan ariko dira, eta 11:00etan, emakumezkoak 500ekoan. Arratsaldean 680 kiloko jokatu da gizonen artean, baina Ibarrak ez du talderik aurkeztuko. Pisu honetan bakarrik egingo dute kale eskualdeko tiralariak, beste maila guztietan hartuko baitute parte. Azken tiraldiak, misto mailakoak izango dira. Neska eta mutilek osatutako bi talde aurkeztuko ditu Ibarrak, eta maila polita emateko esperantzaz aurkitzen dira, gainera.

Eugenio Lopetegui Ibarrak taldearen koordinatzailea da. Bere esanetan, dominaren bat irabazteko aukerak egon badaude. Anjel San Roman entrenatzailea bat dator irakurketa honekin. «Neskek aurten zorte txarra izan dute lesioekin, hala eta guztiz ere gogotsu joango dira Eskoziara. Mistoan talde politik osatuko ditugu, eta mutilen kasuan ikusi egin beharko da, ea dominaren bat lortzen duten», dio Lopetegik. Munduko txapelketa izanagatik, Euskal Herriko taldeen maila altua dela uste du ibartarren entrenatzaileak, baina aurkariaren maila jakitea zaila dela ere onartzen du: «Irlandatik, Ingalaterratik, Eskoziatik, Txinatik, Mongoliatik, Hego Afrikatik... etorriko dira taldeak. Azken munduko txapelketa duela bi urte jokatu zen Italian. Ibartarrak hasi berriak ziren orduan, eta begira nolako gorakada izan duten bi urte hauetan. Gai nontzekoekin ere berdina gertatuko zen».

Munduko txapelketa bat jokatzeko aukerak, bere gastuak ere izaten ditun. Sokatiratik ez direnez bizi, bidaia eta egonaldia finantzatzeko, ibartarrek ate ugari jo behar izan dituzte. Eskoziako txapelketara joateko, urte guztian zehar aritu dira dirua biltzen: txosnak jarriz edo poltsikotik ordainduz. Ibarrak udalaren eta Kirolgiren ekarpena ere izan dutela diote taldeko arduradunek.



Ibarra sokatira taldeko gizon eta emakumeak Durangon, 640 kilotan lortutako txapela ospatzen. HITZA

Mirian Elorza • Tiralaria

«Ez dugu dominen aukera burutik kendu nahi»

Eskoziako bigarren munduko txapelketa izango da Mirian Elorzarentzat (Tolosa, 1981). Duela bi urte, Italian, Sakanarekin brontzezko domina lortu zuen. Perth-en 540 kilotan, 500 kilotan eta mistoan ariko da.

Bigarren munduko txapelketa dazurertzat.

Hori da, duela bi urte Onintza Irolarekin batera Sakanakoekin aritu ginen, eta brontzezkoa lortu genuen.

Eta aurten?

Ez daukagu buruan, baina aldi berean, ez dugu burutik kendu nahi aukera hori.

Nola aurkitzen da taldea?

Urtea oso gustura hasi genuen, hamabi neska elkartu ginelako. Gero, urtero bezala, lesioak edo lana tarteko, bakantzen joan da



A. IMAZ

taldea. Nahiko justu ibiliko garaile uste dut, aldaketak egiteko aukera handiegirik ez dugulako izango. Hala eta guztiz ere, esperantzarekin goaz, ahal dugun hobe biekien egiteko asmoz.

Euskal Herriko txapelketan, hirugarren postuaren inguruan ibili zarete, Badaiotz eta Sakanarekin borrokan. Berrito ere Eskozian aurkituko dituzue.

Hirugarren postua nahiko seguru izan dugu Euskal Herri mailan, bigarrenarekin borrokan. Perth-en edozer gerta daitekeela uste dut.

Gainontzeko aukerak nola ikusten dituzu?

Italian gertatu zen bezala, gogorenak Txina Taipeikoak izango direla uste dut.

Mistoan aukerak dituzuela diote?

Entrenamenduetan eta, mistoan zerbait egin daitekeela ikusi dugu. 4X4ko txapelketetan, maila polita eman du Ibarrak, eta zortziko elegante batekin zerbait egin daitekeela uste dut.

Asier Lizarburu eta Iurgi Iturbe • Tiralariak

«Gure adinekoen maila nolakoa den ikusi nahi dugu»

Ibarra taldeko gazteenetakoak Asier Lizarburu eta Iurgi Iturbe ibartarrak dira. Biek 17 urte dituzte. 23 urte azpiko taldean ariko dira lehian, eta gero, pisuaren eta entrenatzailearen arabera, aukeraren bat edo beste izan dezakete. Biek argi dute Eskoziara ikastera doazela.

Urduri aurkitzen al zarete aukera honen aurrean?

Asier Lizarburu: Oraingoz sentsazio onekin nago. Esperientzia hartzera goaz txapelketara, eta hemendik kanpo sokatira nola dagoen ikustera.

Iurgi Iturbe: Euskal Herrikoak pixka bat ezagutzen dugu, eta orain kanpokoak ikusi nahi dugu, ea



A. IMAZ

nola tiratzen duten eta gure adinekoek nolako maila duten, ikasten jarraitzeko.

Munduko txapelketari buruz, taldeko veteranoek zer esan dizuzete?

A. L.: Lander Oterminekin hitz egiten aritu gara, eta oso gogorra dela esan digu. Tiraldi asko izaten

dira egun batean eta amaierara gogorra izaten dela.

Etxean edo lagunek, nola hartu zuten albistea?

I. I.: Harritua baina ondo. Lagunek ere antzera, «sokatiran munduko txapelketarik ba al dago ba?», galdetzen zizuten.

Makil dantzarekin, baserriz baserri



Nagusia eta saskia daramana aurretik, eta atzean soinu-jolea eta txantxoak Sasietako baserrietan zehar, atzo. I.TERRADILLOS

Abaltzisketako baserrietan izan dira txantxoak, urtero legez; gaur Amezketako talaiak ariko dira

Iñigo Terradillos Abaltzisketa

Urtero moduan, inauterietako igandean Txindokipean makil hotsak izan dira entzungai, eta horien eritmorra dantzatzen ikusi dituzte txantxoak hainbat baserrietan.

Goiztiar ekin zioten Abaltzisketako txantxoek euren atzoko zereginari. Goizeko zortzietan plazan elkartu zen hamaika lagunez osaturiko taldea. Batetik, zortzi txantxoak alkandora eta galtza zuriz jantzita, gorbata beltza, gerriko gorria eta bi zapi sorbaldan gurutzatuta, dotore. Eta, horiekin batera, saskia zeramana eta nagusia. Musika jarriz, berriz, soinu-jolea.

Lehenengo makil dantzak Orendain aldera geratzen diren baserrietan egin zituzten. Pare bat orduz baserritarrei ikuskizu-

na eskaini ostean, gosaltzera abiatu ziren indarberritzeko. Ederki jan eta edan ostean jarraitu zuten ibilbidearekin.

Amezketan, talaiak

Abaltzisketan ezezik, Amezketa aldean ere izan zen makil hotsa entzungai atzokoan. Bertan ere, abaltzisketarren antzeko dantza egin ohi dute inauterietan. Hauen jantzia desberdina izan ohi da, eta doinu bera erabiltzen duten arren, dantza arinagoa izan ohi da.

Bada, hauek ere zortzietarako hasi ziren dantzari, eta bi taldeetan banatuta egin zuten baserrietako ibilbidea. Herri bateko zein besteko baserritarrek oso gustura hartu zuten dantzari eginiko bisita.

Makil dantza, sarean

Abaltzisketako txantxoek makil dantzaren bideoa dago ikusgai gure webgunean, eta baita argazkiak ere. tolosaldea.hitza.info helbidean sartu besterik ez duzu. Gaur, berriz, Amezketako talaiak izango ditugu ikusgai eskualdeko egunkariaren web orrian.



Dotore jantzita, umorez eskaini zizkietan dantzak baserritarrei. I.T.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
 eta Leitzaldeko
 beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902820201**

Garraio publikoa

RENFE

■ Brinkola-Irun

(Tolosako ordutegia):

11:36, 12:16, 13:16, 13:45, 14:16,
 14:55, 15:21, 15:51, 16:36, 17:11,
 17:51, 19:31, 20:13, 20:24, 21:01,
 21:50, 23:18, 01:00, 03:00 eta
 05:00. Trenak ez dira Apeade-
 ron geldituko.

■ Irun-Brinkola

(Tolosako ordutegia):

10:43, 11:23, 12:01, 11:43, 14:20,
 15:18, 16:53, 17:33, 18:41, 18:43,
 19:13, 19:53, 20:33, 21:13, 23:16,
 03:10 eta 05:20. Trenak ez dira
 Apeaderon geldituko.

TSST

**■ 23:00etatik 04:00etara or-
 duro.**

ASTEASU- Zizurkil-Villabona-
 Irura-TOLOSA.

■ 23:30etik 04:30era orduro.
 TOLOSA-Anoeta- Irura-Villa-
 bona-Zizurkil- ASTEASU
 (Santa Klaratik).

**■ 07:00etatik 16:00etara or-
 duro eta horretaz gain, 10:30,
 11:30 eta 12:30ean. 16:45etik
 20:45era ordu erdiro, azkena
 21:45ean. Ez da gaueko zerbi-
 tzurik egongo.**

DONOSTI-Lasarte-Andoain-
 Villabona-Irura-TOLOSA.

**■ 08:00etatik 16:00etara or-
 duro, eta horretaz gain 11:30,
 12:30, 13:30ean. 16:00etik
 20:30era ordu erdiro, azkenak
 21:15, 21:45 eta 22:45ean (La-
 sarte).**

TOLOSA-Irura-Villabona- An-
 doain-Lasarte-DONOSTI.

TOLOSALDEA BUS

■ 00:00-02:00-03:30.

TOLOSA (Zumardi Txiki)-
 Amartz-Itkaztegieta-Alegia-
 Amezketeta-TOLOSA.

■ 01:00-02:45-04:15.

TOLOSA (Zumardi Txiki)-
 Amartz-Ibarra-Berrobi-El-
 dua-Elduain-BERASTEGI.

HIRIBUSA

**■ 10:30, 14:30, 16:00 eta
 22:00etan.**

Ibilbidea: ZUBI BERRIA- Usa-
 bal-industrialdea-Amarotz
 (beheko geltokian)-Kondeko
 aldapa- ZUBI BERRIA.

Agenda

TOLOSAKO INAUTERIAK

■ 09:00. Txarangen irteera.

■ 11:00. Plaza Berrian sokamu-
 turra Arco Iris txarangarekin.

■ 11:00. Karroza eta konpartsen
 irteera.

■ 16:00. Kalejira, Tolosano,
 Poca Tripa eta Arco Iris txaran-
 gekin, Plaza Zaharretik zezen
 plazara.

■ 16:30. Zezenak zezen plazan,
 txarangekin. Ondoren kalejira.

■ 19:00. Dantzaldia Berdura
 plazan Tolosano Poca Tripa, eta
 Arco Iris txarangekin.

■ 23:30. Bonberenea eta Incan-
 sables txarangak kalez kale.

■ 23:30. La Jodedera eta Des-
 kontrol taldeen kontzertuak
 Plaza Berrian. (Ezpeleta elkar-
 tearen babesarekin).

Farmaziak

GAUR

■ Ibarra. Iturrioz, I. Euskal He-
 rria, 3. Telefonoa:
 943 67 09 15.

■ Leitza. Plaza, M.T. Elbarren,
 36. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian
 adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Gora eta behera



EURIA GORA ETA EURIA BEHERA

Inauterietako atzoko egunean, euria izan zen pro-
 tagonistetako bat goiz guztian zehar. Konpartsa
 eta karrozkek euripean egin zuten goizeko itzulia,
 eta mozorroturik atera ziren gainontzekoek ere
 euria jasan behar izan zuten aterkipean. Tolosara

gerturatu zirenek, beraz, eguraldia ez zuten lagun
 izan Zaldunitan. Hala eta guztiz ere, alde ona bila-
 tzen hasita, euririk inauterietan bat egin zuela
 esan daiteke, edo jaia gelditzeko nahikoa ez zela
 izan. Izan ere, nahiz eta mundua amaitu... E. MAIZ



**Inauterietako
 Argazki lehiaketa**



■ Saria:

Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen
Astobietan nekazal turismoa
 bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

■ Argazkiak nora eta noiz bidali:
thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 9a bitarte
 Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!